



EGOERA

Urtetako borroka feminista eta sozialari esker, emakumeek berdintasun formalari erreparatuz gero eskubide ugari eskuratu dituzte, baina, eskubide guztien jabe izan gabe jarraitzen dute gaurko egunean.

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren erronkak politika publiko guztiak busti behar ditu.

Indarkeria matxistari aurre egiteko beharrezkoak izango diren inbertsioez lagunduriko politika publiko eraginkorrek egiteko garaia da, egungo politiketan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna izan behar da, eta prekariedade sistemikotik ateratzeko bitartekoak aktibatu behar dira.

HELBURUAK

Emakume eta gizonen arteko berdintasun formaletik errealerara pasatzera joateko neurriak hartu dira, eta indarkeria matxista gainditzeko akordio sozial integrala ere abian ezarri da.

Emakumeak eta prekariedade, lotuta dauden bi errealitate izateari uzteko, akordio sozial berriak eraikitzen jo da, zaintza lanen ardura eta baldintzak parekidetu, edota sistema produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa gainditzeko haste beretik.

NEURRIAK

1

POLITIKA FEMINISTAK IZAERA ESTRATEGIKOZ LEHENDAKARITZAN KOKATU

Edo beste era batera esanda, emakumeen arazoak, interesak eta beharrak aintzat hartuak izan daitezela politika guztietan, lehentasunezko izaerarekin eta gobernuaren jardunaren ardatz bilakatu.

Politika feministak izaera estrategikoz lehendakaritzan kokatu.

Otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasun Legea garatu, beharrezko dituen neurri zuzentzaileak aktibatuz, eta mugimendu feministarekin elkarlanean.

Jaurlaritzako sail guztietan berdintasunaren aldeko neurri zehatzak aktibatu, aurrekontu propioa esleituz horretarako.

Mugimendu feministarekin interlokuzioa irekitzeko gunea sortu: politika publikoen inguruko erabakiak, proposamenak, segimendu zein ebaluazioak emakume eta mugimendu feministarekin batera lantzeko.

Emakunderen inguruko hausnarketa ireki, legokiokeen eragiteko gaitasuna, irismena, baliabideak eta autoritatearen inguruan besteak beste.

Genero klausulak ezarri kontratazio publiko eta deialdi guztietan: berdintasun planak egin eta garatzera behartu, ponderazio baremoetan genero portzentajeak ezarri, kontratupeko prestazioen emakume onuradunen edo erabiltzaileen ehunekoak ezarri, etab.

Berdintasunaren zein emakumeen duintasunaren kontra egiten duen jardun orori, babes instituzionala ezabatzeko neurriak ezarri.

Bake eta bizikidetzak kultura berria eraikitzen joateko, azterna feministak landu eta memoria eta erreparazioarako errelatoa eraiki.

Emakume baseritarren legean sakondu eta garapenerako bitartekoak aktibatu.



INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK BIZITZEKO BALDINTZAK SORTU

Sexu-genero sistemaren baitako botere-harremanak mantentzera edo indartzera datorren oro indarkeria matxista dela jakitun, eta indarkeriak, beraz, jatorri estrukturala duen heinean, aurre egiteko neurriak eta erantzunak ere integralak behar dute izan.

Antolaketa sozialari erantzuten dioten egiturazko aldaketekin batera, indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina. Pertsonak askatasunean heziko dituen hezkuntza sustatu behar da (sistema heteropatriarkalak sortzen dituen emakume eta gizonen arteko botere-harremanak eta emakume eta gizon izateko eredu bakarrak gaindituko dituen). Pertsonon sozializazio-prozesuei erreparatzea ezinbestekoa da, hortaz.

Legeak eta egiturak:

Indarkeria matxistari aurre egiteko lege integrala egin eta garatu.

Indarkeria matxistari aurre egiteko lan-taldea osatu: mugimendu feminista eta indarkeria gainditzeko lanean diharduten elkartekin batera.

Indarkeria matxistaren behatokia sortu: indarkeriaren adierazpen ezberdinak jaso, dokumentatu, aztertu, zabaldu, beste herrialdeetako politikak ezagutu eta aztertu eta politika publiko eraginkorrak proposatuko dituen.

Emakumeen jabetzea sustatu:

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoa mailako jabetze eskola erreferentziala sortu.
- Herrietako jabetze-eskolen eta emakume etxeen finantzaketa indartu.

Hedabideak:

- EITBren birfundazioa garatu.
- Indarkeria matxistaren tratamendu informatiboaren inguruko kode deontologikoa landu eta aplikatu, izaera loteslearekin.
- Hedabideen behatokia indartu, baliabide propioekin eta aurrekontu esanguratsuekin: hedabideetako edukien segimendua egin eta Berdintasun Legea betearazteko neurriak proposatuko dituen, besteak beste.

Hezkuntza:

- Hezkidetzak eta berdintasuna curriculumean integratu eta modu egonkortuan garatzeko baliabide tekniko zein ekonomikoak aktibatu.
- Sexuen baitako estereotipo eta harremanak gainditzeko lan-ildoak aktibatu.
- Jolas-tokien eta espazio publikoen erabilerari buruzko lanketa garatu.

Osakidetza

- Berdintasun Plana garatu eta etengabeko trebakuntza plana ezarri osasun-langileei zuzenduta.



PERTSONEN ZAINTZA ETA ONGIZATEA ERDIGUNEAN JARRI

Parekidetasun klabeen zaintza erantzunkidea izan dadin, hots, emakumeak ez ezik gizonak eta erakunde publikoak ere ardura daitezten.

Zaintzarako zerbitzu publikoak garatu.

Zahar-etxeetako langileen lan baldintzak duindu eta dependiente-zaintzaile ratioak hobetu.

Haur eskolen doakotasuna eta unibertsaltasuna garatzeko neurriak aktibatu.

Zaintzarako diru-laguntzak indartu, gizonezkoak zaintza lanetara integrazeko neurriekin batera.



PREKARIZAZIOA GERATU ETA BIZI-BALDINTZA DUINAK GARATU

Bizi-baldintzak eta eskubideak merkatutik deslotzen hasiz

Emakumeek lan merkaturako sarbidea eta mantenua berdintasunean eta duintasun baldintzen baitan izateko baldintzak eraiki.

Bizi-baldintzak eta eskubideak merkatutik deslotzen hasteko neurriak aktibatu

Enplegu feminizatueta lan-baldintzak hobetzeko neurriak aktibatu

Garbitzaileen lan-hitzarmenen errebisioa eta lan-hitzarmenen duintzea.

Etxeko langileen baldintzak langileen estatutuan jasotako eskubideekin berdindu.

Lanaldi partzialak eskubideetan eta prestazioetan lanaldi osoarekin parekatu (lan-eguneko egun-kotizatua).



ESKUBIDE SEXUAL ETA ERREPRODUKTIBOAK INDARTU

Ernalketari dagokionean, eduki nahi den haur kopuruari dagokionean, eta bai sexualitatea askatasunez eta libreki erabakitzen den moduari dagokionean ere.

Abortatzeko euskal lege propioa garatu

Edozein delarik ere afektibitatea, sexualitatea, generoa eta gorputza garatzeko hautua, eskubide guztiak guztientzat bermatzen direla ziurtatzeko neurri normatibo eta tekniko-ekonomikoak abiatuko dira.